

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua negozio-eredu berritzaile bat da, banku eta bidaia-agentzia zerbitzuak uztartzen dituen. Bezeroek dirua aurrezten joan ahal izango dute, eta epe jakin baten ondoren, guk aurrezki horrekin kalitate handiko eta guztiz pertsonalizatutako bidaiak antolatuko dizkiegu. Horrela, ez dute diru-kopuru handia bat-batean metatu beharrik izango; aitzitik, modu eroso eta progresiboan osatuko dute bidaia finantzatzeko beharrezkoa den zenbatekoa.

Gure proposamenak bi zerbitzu nagusi batzen ditu. Alde batetik, banku birtual fidagarri eta espezializatua izango gara, non bezeroen aurrezkiak segurtasun osoz kudeatuko diren. Bestetik, bidaia-agentzia izango gara, bezeroen gustu eta beharretara egokituta bidaiak antolatzeko aditua. Zerbitzu horiek uztartzeak eraginkortasuna eta denbora aurrezteko ekarriko die bezeroei, bidaia-antolaketa ardua guztia gure gain hartuko baitugu. Gainera, gure sistema bezeroak hileren zenbateko finko bat aurreztera bultzatzeko diseinatuta dago, gastuak modu planifikatu eta jasagarrian kudea ditzaten.

